

## MIRAU COURT, Christophe. *Sorgin bat ikaragarri polita.*

Marrazkilaria: Elisabeth Schlossberg

Itzultzailea: Jose Antonio Sarasola

Argitaletxea: IBAIZABAL

Iñaki ZUBELDIA

Liburu zoragarri baten aurrean gaude eta irakurri duten ikasleek eta euren andereño/irakasleek halaxe ziurtatu digute. Irakurle hasiberrientzat oso egokia da. Kontrazalean 5 urtetik gorakoentzat gomendatzen da.

Sorginei buruz hitz egiten du kontakizunak eta ikusiko dugu oso mundu berezia dela sorginen hau. Istorio honetan agertzen diren sorginak itsusiak dira, garatxo eta pikortaz beteak eta, gainera, harro daude itsusi izateaz. Beren umeak hezurrez egindako sehaskatan edukitzen dituzte lo, armiarma-sarez egindako maindire artean eta saguzar-hegoekin egindako txanoak jantzita. Horrez gain, ahalmen magikoak dituzte eta jendeak errespetua eta beldurra die.

Honelakoxe familia batean jaio zen Edernini ere, munduan izan den sorginkumerik ederrena gure begiekin begiratuta, baina neskatilarik nazkagarriena eta desatseginena sorgin begiekin ikusita. Bere gurasoak kezkatuta zeuden hain ederra zelako, eta beren buruak engainatzen saiatzen ziren honelako hitzak esanez: "Hauxe bai ume itsusia! Edozein sorgin bezain itsusia da! Zer nazkagarria den...!" Umeari sorgin itxura emateko jantzirik zarpailenak janzten zizkieten egunez eta lotarakoan simaurrarekin eta lokatz zikinekin egindako kremak ere ematen zizkieten aurpegian eta inon diren nazkagarrikeriarik handienak jartzen zizkieten ilean... Baina hurrengo goizean, azala inoiz baino finago eta leunago eta ile-adatsa inoiz baino distira-

tsuago eta ederrago zuela esnatzen zen neska gajoa. Edernini hain ederra zen, non printzesa ematen baitzuen.

Gurasoentzat zoritxar larria zen hura. Ama, Sorginen Batzorde Nagusiko Ohorezko Lehendakaritza kargutik kendu egin zuten. Sorginen andereñoak Edernin zigortu egiten zuen egunero. Beste sorginkumeei beren gurasoek ez zieten Ederninirekin jolasten uzten... Eta honek tristuraz eta penaz betetzen zuen neskatilaren bihotz samurra.

Baina mundu honetan ez da dena beltza edo dena pena eta tristura izaten. Bizitzak bere alde koloretsu, bizi eta alaiak ere baditu. Edernini ere, gazte eder eta lirain bihurtu zenean, printze artaburu ugari etorri zitzaion haren ahalmen magikoekin gehiago aberasteko asmotan. Eta denak zapo bihurtu zituen, hain zuri eta hain bereko izategatik. Baina, printze ximple eta jator bat etorri zitzaion, berekin maitemindu zena, eta harekintxe ezkondu zen eta zoriontsu bizi izan ziren luzaroan.

ETA HAU HALA BAZAN SAR DADILA KALABAZAN  
ETA ATERA DADILA IKAZTEGIETAKO PLAZAN.